

Galdera

Testu bat lantzen ari naiz, eta 'mesotermo' edo 'mesotermiko' den argitu ezinean nabil. Hona hemen testua: "Urdaibai zonalde atlantikoko kliman integratuta dago, Bizkaia osoa bezala, honek atlantiko mesotermoa du, epela eta hezea, itsasoak erregulatua, muturreko tenperaturarik gabea (batez beste 9 °C neguan eta 19 °C udan). Prezipitazioak altuak dira (1500 mm-ko media urtean), urtean zehar uniformeki banatua": zein da egokia?

Erantzuna

Gure iritzian, '**mesotermiko**' da formarik ohikoena klimari buruz ari garenean.

1/ Euskalterm Terminologia Banku Publikoak honela jasotzen du:

Geologia, Meteorologia - Klimatologia - Bestelako terminoak [*Hiztegi terminologikoa*] [2017]

eu [klima mesotermiko](#)

Definizioa Thornthwaite-k egindako klima-sailkapenean, probintzia termikoetako bat, klima epelari dagokiona.

es [clima mesotérmico](#)

fr [climat mésothermique](#)

en [mesothermal climate](#)

2/ Hona adibide batzuk:

- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak argitaratutako [Klima ozeanikoa eta Mediterraneokoa](#) artikuluan:

"Köppenek egin zuen klimen sailkapenaren arabera, klima ozeanikoari C sinboloa dagokio, «b» sinboloaz uda beroak dituen klima **mesotermiko** hezea adierazten da, eta «c» sinboloaz uda labur eta freskoak dituena".

- Wikipedian, [Urdaibai](#) eskualdeari buruzko artikuluan:

"Urdaibai zonalde atlantikoko kliman integratuta dago, Bizkaia osoa bezala, honek atlantiko mesotermikoa du".

- Elhuyar Hiztegiak, [isurialde](#) sarreran, adibideetan (*Adibide gehiago* puntuan):

"...ak Urretxurekin lotzen du. Antzuola Euskal Herriko **isurialde** atlantikoan kokatuta dago eta kantauriko klima mesotermikoa..."

3/ 'Mesotermo' (*adj. Biol.*), berriz, Biologian erabiltzen da gehienbat, eta, bereziki, Botanikan:

Grekoz *μέσος* *meso-* 'erdi-', 'ertain' eta *θερμός* *termo* 'bero'. Honela definituko genuke guk:

eu mesotermo, *adj. Biol.* landareei buruz mintzatuz, modu egokian hazteko, tenperatura ertaina (urtean, batez beste, 15 °C eta 20 °C artean) eta hezetasun handia behar dituen.

es mesotermo, {*adj.*} [Ecología] Dícese de las plantas que requieren para su desarrollo una temperatura media anual comprendida entre 15 °C y 20 °C y una humedad elevada.

fr mésotherme, *adj.* [En parlant d'une plante] Qui s'accommode d'une température et d'une hygrométrie moyenne (Dict. xx^{es}s.).

en mesotherm, a plant that requires a moderate degree of heat for successful growth.